

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Kanpezuko administrazio-batzarrentzako dirulaguntza deialdia, 2026ko gastu orokorrak eta herriko jaiak finantzatzeko

BDNS(Identif.): 927115.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/927115>).

Lehenengoa. Onuradunak

Kanpezuko udalerriko administrazio-batzarrek jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek, baldin eta egunean badituzte zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Bigarrena. Xedea

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen helburua da Kanpezuko udalerriko herrietako funtzionamendu-gastu orokorrak ordaintzen eta herriko jaiak ospatzen laguntzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalbatzaren Osoko Bilkurak onartu zituen 2026ko martxoaren 16an.

Laugarrena. Zenbatekoa

Diru-laguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, honako hau izango da administrazio-batzar bakoitzeko:

2026rako gastu orokorretara eta jaietara bideratutako zenbatekoa: 15.067,37 euro. Zenbateko horren ehuneko 60 modu linealean banatuko da erakunde guztien artean, eta gainerako ehuneko 40a gune bakoitzak urtarilaren 1ean duen biztanleriaren arabera.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Dirulaguntzaren eskabidea eta gainerako dokumentazioa 2026ko azaroaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira (egun hori barne).

Santikurutze Kanpezu, 2026ko abuztuaren 31

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO